

herrera

# Mendiari errespetua

**d**uela aste batzuk lau mendizale donostiarrak susto txiki bat eman ziguten aste burua pasatzera Pirineotara joan zirenean. Horien artean bi hererratar zeuden, Aitziber Yarza eta Iñaki Sedano. Zorionez, gazte hauek, ekaitzak harrapatu zituenean, Pantikosako Bachimaña aterpean geratzea erabaki zuten eta onik atera ziren. Familiakoek arduratuta pasa zuten gaua eta hurrengo egunean erreskate taldeek jaso zituzten aterpean.

Lau gazteak federatuak zeuden eta Aitziber gainera, Herrerako Mendizaleak Elkarteko kide dugu, hori dela eta, bertako zuzendaritza batzordeko Xabier Inciarteri bere iritzia eskatu genion kasu honen inguruan eta gomendioak ere eskatu genizkion mendira atera baino lehen hartu behar diren neurrien aurrean.

Xabierren esanetan *«Pirineoei errespetu handia eduki behar zaie. Argi geratu da gazte talde honek esperientzia nahikoa duela Pirineotan, besteak beste, Iñaki Sedanok ibilbide hori egin zuen. Hala ere, konfidantza gehiegi eta inprudentzia maila minimo bat erakutsi dute»*. Pirineotara neguan joanez gero, ezinbesteko baldintza dugu zerbitzu meteorologikoetara deitzea eta bertako eguraldi parteak jarraitzea. Gainera, Xabierrek dioenez,



Mendira joateko, eta are gehiago Pirineotara, behar-beharrezkoa da eguraldi iragarpenei kaso egitea.

*«jakin behar da aldatzeko arropa motxilan eraman behar dela eta janaria soberan izatea garrantzitsua dela»*.

Herrerratar hauen eta bere taldekideen kasuan,

azken baldintza hauek ondo bete zituzten eta zorionez, gertatutakoa sustoa izan da soilik.

Hala eta guztiz ere, mendiarekiko errespetua mendizalearen urrezko

legea dugu bestela aurten gertatutako istripuak geroz eta ugariagoak izango dira.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

## altza

**Korrikaren 9. edizioak** ekitaldi bereziak ekarri ditu Altzara eta Euskal Jaiak antolatu dira. Martxoaren 16ean, kontzertua emango du Larrua Truck taldeak Casares Kultur Etxean 20.00etan.

Hilaren 17an, ostiralean, Korrika Txikia egingo da. Kiki, Moko eta Koko pailazoak arituko dira eta txokolatada ere izango da 15.00etan frontoian. Larunbatean goizetik hasita haur jaiak egingo da gazte-lu puzgarriekin Harria parkean eta arratsaldean malabareak eta txokolatada

izango dira. Jaiak kalezikale jarraituko du helduentzat eta 22.00etan Korrikari ongi-etorria emango zaio.

San Markosera ibilaldia eta barrikotea frontoian izango dira igandean eta ondoren Maixa eta Itziar trikitilariekin dantza egin ahal izango dugu.

**Rol jokua** izango dira, martxoaren 10ean, ostirala, Altzako Gazte Lekuak antolatuta arratsaldeko 17.00etatik aurrera: akelarrea, beldurra, men-

debaldeko giroak eta fikziozko egoerak bizi ahal izango ditugularik. Aukeratu joku bat eta apunta zaituz.

**Cristina Almeida** politikoa eta abokatua izango dugu gure artean hilaren 14an arratsaldeko 15.30etan. Gogoratu emakumearen asterako iragarria zegoen hitzaldia atzeratu egin zela.

Eraikuntza Institutoko Areta Nagusian *«Emakumea eta elkarkidetzaz»* arituko da.